

## **GURE ENPRESAREN FUNTSEZKO JARDUERAK**

Ekoizpena, banaketa, publizitatea eta garraioa izango dira gure ekoizpenarekin erlazionatuta egongo diren jarduerak.

### **1. EKOIZPENA**

Gure enpresan oso garrantzitsua izango da ekoizpena arropa egiteko eta baita pertsonalizatzeko ere. Gure arropa ekoizteko produktu gehienak (telak, artilea, kotoia...) ACTECO elkarteak hornituko dizkigu, bigarren eskuko arropa jasotzen duen enpresa baita. Guk ere produktuak erosiko ditugu, zerbait izateko badazpada ere, produktu hoiek landu egingo ditugu, azkenean arropa pertsonalizatua eskaintzen dugu, eta ekoiztu ahal izateko beharrezkoa izango ditugu tela oinarri bat.



Arropa ekoitzi ahal izateko, josteko gaitasuna duen jendea beharko dugu, eta baita josteko makinak ere. Langileak lortzeko, gure inguruko jendearen artean bilatuko dugu, hasieran langile gutxi izango ditugulako. Ezagutzen dugun jendearen artean josteko gaitasuna duen jendea aurkitzen ez badugu, gure sare sozialetan eta kalean zehar bilatuko dugu. Hasieran, ekoizpena gure dendan bertan egingo dugu, tailer bat alokatzeko adina irabazi lortu arte. Lehen aipatu dugunez, langile gutxi izango ditugu hasieran, ez baitugu izango nahiko dirurik gehiago izateko. Hori dela eta, bi langile kontratatuko ditugu hasieran gutxi gorabehera, eta ahal izan ezkerro, josten ikasten saiatuko gara, ekoizpenean parte hartzeko. Irabaziak lortzen hasten bagara, langile gehiago kontratatuko ditugu.

### **2. BANAKETA**

Gure produktuak hornitzeko dendan edo web-orrian banatzeko aukera izango dugu. Dendan erostearen abantailetakoa bat jendeak nahi beste jantzi lasai probatu ahal izatea da. Era berean, askoz hobeto ikusi ahal izango dute jantzia, testura ukitu, neurri egokia aurkitu, itzulketak egin beharrik gabe... Internet bidez erostearen abantailetakoa bat produktuak ikusi edo erosketak etxetik egin ditzakezula da, mugitu beharrik gabe. Beste abantaila bat dendaren katalogo osoa ikustea da, web orrian dendan baino produktu gehiago

baitaude.

### **3. PUBLIZITATEA**

Sare sozialak (Instagram, Tiktok) erabiliko ditugu gure negozioari eta produktuei buruzko argazkiak, bideoak eta informazioa argitaratzeko. Horrela, bezero gazteak erakarriko ditugu. Gure bezeroek sare sozialik ez badute, web orri bat sortuko dugu jendeak jantziak etxetik ikusi eta erosi ahal izateko.



### **4. GARRAIOA**

Gure enpresak web-orria izango duenez, arropa Espainiako toki desberdinetara banatzeko, kamioi karneta duen jendea beharko dugu. Horretarako ere gure ezagunen artean bilatuko dugu, eta aurkitu ezean, sare sozialietatik edo kaletik bilatuko dugu. Correos konpainiatik bidaliko ditugu enkarguak Espainia osora. Hasieran, bakarrik Espainian zehar bidaliko ditugu enkarguak, baina gure negozioa leku gehiagotara iritsi ezker, InPost zerbitzua ere edukiko dugu produktua beste herrialde batera iritsi behar bada. Konpainia hauek produktua erosle bakoitzaren etxera eraman dezakete, edota jasoketa puntu batean utzi.

### **5. SALMENTA**

Jarduera garrantzitsuenetakoa da, beste jarduera guztiak salmentak lortzeko baitira. Salmenta bi modutan eskainiko dugu, denda fisikoaren eta webgunearen bitartez, gertu bizi ez direnei arropa erosteko aukera emateko.